

Borondate politikoa aldarazi duen **BORROKA KOLOSALA**

Aiala Elorrieta Agirre



IZAN TA ESAN

015 | 2025eko maiatza

**MANU
ROBLES
ARANGIZ**
FUNDAZIOA

Borondate politikoa aldarazi duen BORROKA KOLOSALA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ATZERA BEGIRA: HITZARMEN PROPIOA DUEN LEHEN KIROLDEGIETAKO BAT	4
3. HIRUGARREN HITZARMENAREN IRAUNGITZEA	7
4. AZPIKONTRATATUKO ENPRESA ALDAKETA	8
5. HAUTESKUNDE SINDIKALAK	9
6. NEGOZIATZEKO BORONDATERIK EZ DUEN ENPRESA	10
7. LEHEN GREBA EGUNAK	13
8. GREBA MUGAGABERAKO SALTOA	14
9. KIROL KLUBEN PRESIOA	15
10. GREBAREN EGUNEROKOA: EKINTZA SINDIKALA ETA EMOZIOAK	19
11. UDAL GOBERNUAREN ALDAKETA	23
12. MUGARRI SINDIKALA: KONTRATU PUBLIKO BAT ETETEA PLEGUAK ALDATU ETA LAN-BALDINTZAK HOBETZEKO	24
13. GARAIPEN TRESNAK	27
14. AKORDIOA	29
15. ETA ORAIN, OSPATZERA!	29
16. ONDORIOAK	30

Izan ta Esan 15
2025eko maiatza

fundazioa@ela.eus
[@mrafundazioa](https://www.mrafundazioa.eus)
www.mrafundazioa.eus



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Fotokonposizioa: Edorta
Inpresioa: Bilbograf

1 Sarrera

Tolosako Kiroldegietako langileek 2023an egindako greba mugagabea sona handikoa izan da eskualde osoan. Hasieran, kiroldegia itxita mantentzea ezinezkoa zirudien, eta gehienez ere bizpahiru eguneko kontua izango zela uste zuten askok. Baina, azkenean, maiatzetik azarora arte luzatu zen greba, ia zazpi hilabete iraun zuelarik. Gainera, gatazka are luzeagoa izan da, 2020an hitzarmena iraungi zenetik akordio bat lortzeko borondatea agertu zuten arren, 2024ko azarora arte ez baitzen lan-hitzarmena sinatu.

Grebaren ondorioz, kirol-instalazioak itxita egon ziren udan eta udazkenean, inguruko kirol klubek entrenamenduak berriro hasteko beharra zuten garaian.

Zerk eraman zituen langileak greba egitera? Zergatik luzatu zen hainbeste? Zein unetan eta zergatik erabaki zuten lanera itzultzea?

Konponbidearen hasiera EH Bildu-ren udal gobernuak hartutako erabakiarekin etorri zen. BPXport enpresarekin zuen kontratua etetea eta baldintza-agiri berriak ateratzea erabaki zuen, eta langileek berme hori zutela ikusita, lanera itzultzea erabaki zuten. Hala ere, egoera ez zen berehala konpondu, eta lan-hitzarmena sinatu arte ia beste urtebete igaro behar izan zuen. Hitzarmen horrek langileen aldarrikapen nagusiak jasotzen zituen eta gatazka amaierara eraman zuen.

Garaipenik handiena hitzarmena izan zen, zalantzarik gabe, baina antolakuntzaren aldetik, badago zer nabarmendu: alkatetzak gatazkari buelta emateko erakutsitako borondate politikoak frogatu egiten du, borondate politiko dagoenean, administrazio publikoak esku har dezakeela azpikontratutako enpresekiko lan-gatazka batean. Sarritan, azpikontratazioak tarteko dauden gatazka sindikaletan, ELA sindikatutik administrazio publikoak interpelatzen ditugu, gogorazteko zerbitzuak azpikontratuta egon arren, erantzukizuna haiena dela. Izan ere, administrazioak ezin du prekaritatearen, soldata-arrakalaren edo azpikontratutako langileen lan-baldintza kaskarren aurrean begiak itxi. Kasu honetan, borroka sindikalaren presioak eta hilabeteetako grebak udala erantzukizun horren jabe egitera eraman du eta ondorioz, neurriak hartzera behartu.

Prozesu osoa hobeto azaltzeko eta gatazka honen berezitasunak aztertzeko, kiroldegiko hiru langilerekin, bi ordezkarekin, sektoreko ELA sindikatuko federazio eta eskualdeko arduradunekin egon gara solasean. Haien testigantzak baliatuta, borroka honek izan duen ibilbidea jaso eta balioa ematea izan da dokumentu honen helburua.

2 Atzera begira: hitzarmen propioa duen lehen kiroldegietako bat

2010eraino jo behar dugu atzera, Gipuzkoako Kirol-Instalazio publikoetako lehen hitzarmenera iristeko. Ordura arte, azpikontratatuta zeuden kiroldegietako langileei Gipuzkoako Ikuskizun eta Kirol-Lokalen Sektoreko Lan Hitzarmena aplikatzen zitzairen. 2012an Mariano Rajoyren gobernuak bultzatutako Lan Erreformak ultraktibitate mugagabearekin amaitu zuen, eta horren eraginez, hitzarmen asko kolokan geratu ziren, linbo batean.

Horixe izan zen Gipuzkoako Kirol-Instalazioetako hitzarmenaren kasua: indarrrik gabe eta berritzeke geratu zen. Maddi Aspiazu ELA sindikatuko egiturako kidea da eta zerbitzuen sektorea antolatzeaz arduratzen da Oria-Goierriko eskualdean. Garai horretan gertatukoa gogorarazi zidan:

“Ultraktibitatearen etetearekin sekulako pastela ireki zen. Kiroldegietako batzuek atzerapausoa eman zuten, berriz ere “Ikuskizun eta kirol lokalean” hitzarmena aplikatzen hasi zirelako. Beste udal batzuetan, nahiz eta ultraktibitaterik ez egon, baldintza-agirien bitartez iraungita zegoen sektoreko hitzarmena aplikatzen jarraitu zuten. Eraitza nagusia: kiroldegietan hitzarmen desberdinak ari ziren aplikatzen”.

Maddi Aspiazu

2012 urtean gaur egun baino gutxiago ziren azpikontratutako udal kiroldegiak, eta azpikontratatuta zeudenak oraindik ez zeuden hain antolatuta sektore moduan.

“Hitzarmena berritzen saiatu ginen, baina ez genuen lortu. Sektore moduan mobilizazioak egiten saiatu ginen baina horrekin ere ez zen nahikoa izan. Puntu horretan sindikalki antolatuta zeuden kiroldegi zehatzetan negoziaketa propioak bultzatzeari ekin genion”.

Maddi Aspiazu

Abagune horretan kokatu behar dugu, beraz, Tolosako Kiroldegiko lehen hitzarmen propioa sinatzea, 2014 urtearen hasieran. Tolosarekin batera, garai bertsuan sinatu zuten akordioa Hondarribikoek ere.

“Sektorera egokitutako hitzarmena izan zen lehen hitzarmen propio hau. Hitzarmen konpletoa zela esan daiteke, esate baterako, klaseen prestaketa kontuan hartzen zuena. 2012an sektoreko hitzarmena iraungi zenetik, zenbait kiroldegi ‘Gipuzkoako ikuskizun eta kirol lokalen hitzarmena’ aplikatzen hasi ziren berriro, eta langileek baldintzak nabarmen egiten zuten atzera horrela”.

Maddi Aspiazu

Maddi Aspiazuk kiroldegien sektorea antolatzeko izandako arazo historikoak azaldu ditu: azpikontrata kopuru gero eta handiagoa, zentro ugari, ikuspegi sektorial mugatua eta langileen errotazio handia.

Hitzarmen propioa sinatu zuten kiroldegietan, lotura zuzena dago bi elementuren artean: sindikalizatuta egotea eta lan baldintza hobekuntza.

“Hitzarmen propioak, langileek lan baldintzetan atzera egitetik babesten zuten. Izan ere, Gipuzkoako ikuskizun eta kirol lokalen hitzarmenera itzultzeak, esan bezala baldintzen okertzea zekarren. Partzialtasun handia da sektorean”

Maddi Aspiazu



3 Hirugarren hitzarmenaren iraungitzea

Lehen hitzarmen horren atzetik, beste bi ere berriztea lortu zuten, hein handi batean antolakuntza sindikal sendo bati esker. Hirugarren hitzarmena 2020ean iraungitzen zen eta berriaren negoziaketa atzeratuta zetorren. Azken soldata igoera langileek 2020an izan zuten:

“Covid-19 ak dena hankaz gora jarri zuen, bazkideak galdu ziren, atera behar zituen baldintza-agiriak ez ziren ateratzen... Ez genuen lortzen hitzarmenaren negoziaketa berrabiatzea. Hasieran pandemia zela, aurrerago elektrizitatearen prezioen igoera zela...”
Maddi Aspiazu

Garai horretan zerbitzua Kirolzer enpresaren bitartez zegoen azpikontratatua. Enpresa honek ez zuen akordiorik berriztu nahi baldintza-agiri berriak atera arte. Beraiek justifikatzen zutenez, orduko baldintza-agiriekin ez zuten marjinik lan baldintzak hobetu ahal izateko.

Baldintza-agiri berriak 2022an atera ziren, EAJ udalean zegoela, eta urte bereko irailean azpikontratazioa beste enpresa batek irabazi zuen: BPXport enpresak hain zuzen. Baldintza-agiri berri horiek ateratzerako orduan, udalari eskatu zitzaion kontuan hartzea langileen baldintzak izoztuta zeudela 2020tik, eta hori zuzentzeko bitartekoak jar zitzatela. Baldintza-agiri berri horietan ez zen horrelakorik ahalbidetu eta gainera, hamar urterako atera ziren.

Hamar urtetarako baldintza-agiriak BPXport enpresari zerbitzuen kudeaketa osoa ematen zion. Modalitate honek dakar, kiroldegira enpresa bat etortzea eta enpresa kudeaketa osoarekin arduratzea. Baita kuota eta diru-sarrerekin ere. Kontratazio era honekin ia ez dago langileen baldintzak hobetzeko marjinik. Langileen soldatak igotzeko aukera ia bakarra bazkideen hileroko kuota garestitzea da. Gainera, “kudeaketa osoa” azpikontratatzaren denean, urte askotarako adjudikazioak egitea dakar. Gure kasuan, hamar urterakoa esan dugun bezala.

“Guk nahi genuena ez zen kudeaketa integrala: ‘zerbitzuen prestazioa’ moldearen aldekoak ginen. Zerbitzua gisa honetan azpikontratatzan denean, ez da kudeaketa integralean bezala. ‘Zerbitzuen prestazioa’ egiten denean, enpresa bat azpikontratatzan da bai, baina soilik langileen kudeaketaz arduratzeke. Gainerako gastu guztiak, baita sarrerak ere, udalaren ardura pekoak dira. Enpresari diru kopuru bat esleitzen zaio langileen kudeaketaz arduratzeke.”

Maddi Aspiazu

‘Zerbitzuen prestazioa’ moldeak erraztu egiten du, nolabait, lan baldintzak hobetu ahal izatea, soldata igoera ez baitago bazkideen kuota igoerarekin baldintzatuta. Horrekin batera, azpimarratu behar da zerbitzuen prestazioa ez dela urte luzeetarako esleitzen. Aitzitik, gehienez bi urtera mugatzen dira eta horrek, dakar, urte gutxira, hitzarmen berria negoziatu ahal izateko abagunea.

4 Azpikontratatu — enpresa aldaketa

Aurretik aipatu dugu atzeratuta zetorrela hitzarmenaren berriztatzea, kiroldegiko langileen eta Kirolzer enpresaren artean. 2022ko baldintza-agiri berriek, beste oztopo bat gehitu zioten egoerari, enpresa aldaketarekin. Esleipena BPXportek irabazi zuen, beste motibo batzuen artean proposamen ekonomiko merkeagoa egin zuelako.

Enpresa honen sarrerak zalantzak eta susmoak piztu zituen langileen artean:

“Badakigu beste kiroldegi batzuetan ez dutela hitzarmenik negoziatzeko jarrerarik agertu.”

Langilea 1

“Gure lan baldintzekin zer gertatuko ote zen, hor bagenuen kezka bat.”

Langilea 2

BPXport 2022ko irailean sartu zenean, langileek hilabeteko tartea eman zioten enpresari kokatu zedin eta orduan jarri ziren harremanetan, negoziazioaz hitz egin asmoz:

“Ordezkariek bilera batera deitu genuen enpresa. Horren aurretik langileak elkartu ginen egoera gure artean azaldu eta ulertzeko. Enpresa jakinaren gainean jarri nahi genuen: hitzarmena berriro gabe geneukala eta berritzeko unea zela”

Langilea 2

5 Hauteskunde sindikalak

Esan bezala, Tolosakoa, antolatuta eta sindikalizatuta dagoen kiroldegia da. Aurretik abiatutako bide bat dago, langileek egin dutena, negoziaketa propioen bitartez, haien lan baldintzak hobetzeko.

“Lehen hitzarmen propioa sinatzean, bide bat ireki zen”

Maddi Aspiazu

“Langileen zati handi bat sindikatuan antolatuta dago. Gehienbat, nire ustez, orain arteko urte guzti hauean, gure baldintzak bermatzeko orduan, gure ordezkariek lan ona egin dutelako izan da. Guzti horrek sustatu du langileak afiliatu eta sindikatuan antolatzea”

Langilea 2

Langileen artean, portzentaje handi bat dago afiliatuta, 33tik 25 inguru. baldintza-agiri berri eta enpresa berriaren ezarpenarekin bat, 2022 urteko udazken horretan bertan, hauteskunde sindikalak antolatu zituzten kiroldegian. Aurretik, Kirolzer enpresarekin zeudenean, Gipuzkoa mailako batzordea zegoen baina enpresa aldaketak ekarri zuen kiroldegiko batzorde propioa aukeratu beharra.

“Horrek ere nolabait atzeratu egin zuen negoziaketei ekitea 2023ko hasiera arte, ordezkariak aukeratu behar genituen eta. Hiru ordezkariak hiru atera genituen. Haietatik bi aurreko mahaian ordezkari izandakoak ziren. Eta hirugarrena, berria”

Maddi Aspiazu

Gatazkak berak, dagoeneko afiliazio maila altua zuen lan zentroa are gehiago sindikalizatzeko balio izan du:

“Enpresa aldaketarekin, gure artean susmoa piztu zenez, afiliatuta ez zeuden langile batzuk orduan afiliatzeko pausua eman zuten”

Langilea 1

Hauteskundeak egin beharrak negoziaketa bileren hasiera atzeratu zuten.

6 **Negoizatzeko borondaterik ez duen enpresa**

2023 urtean hasieran kokatu beharra dugu, BPXport eta langileen arteko negoziaketa prozesuaren hasieran kokatzeko. Kiroldetik langile eta ordezkariarekin egindako elkarrizketetan, mahaigaineratu ziguten BPXporten jarrera hitzarmena berrizterako orduan, hasieratik izan dela desegokia.

“Lehen bileratik gaizki joan zen”

Langilea 1

“Ganorarik gabeko bilerak ziren”

Langilea 2

“Etengabeko luzamendutan zebiltzan. Lehen bilerak 2023 hasieran izan ziren. Bileretara azaltzen ziren gure proposamenak irakurri ere

egin gabe. Ez zuten hitz egiteko borondaterik agertzen. Dirurik ez zegoela, eta txikikeria bat eskaintzen ziguten”.

Langilea 3

Lehen bilera horietan enpresak %1eko igoera eskaintzen zien langileei. Kontuan hartu behar da urte horietan %6 inguruko KPI tasak izan zirela. Langileek, KPI eguneratzeaz gain urteetan hobetu gabeko bestelako lan baldintzak ere hobetzea exijitzen zuten. Horregatik, ez zuten onargarritzat jotzen soldaten igoera, gaurkotu gabeko 2020ko soldatetatik abiatzea. Alegia, 2020 urtetik 2022rako tarteko soldatei ere heldu beharra zegoen.

“Soldata igoko zutela esaten ziguten, baina 2020tik izoztuta zeuden soldatetatik abiatuta. Hor asko galtzen genuen. Guk eskatzen genien lehenengo soldatak eguneratzeko eta gero aplikatzeko igoera”.

Ordezkaría 1

“%6,5koa izan zen KPI 2020an. Zergatik egin behar diogu uko erosahalmenari. Baldintza-agiriak bi urtez atzeratu ziren, 2020an hitzarmena iraungi zenetik 2022arte. Gakoa honakoa da: baldintza-agiriak bi urte atzeratzeak zergatik ekarri behar du erosahalmenaren galera?”.

Maddi Aspiazu

Erosahalmena berreskuratzea izan zen hasieratik langileek eskatzen zuten aldarrikapen nagusietako bat. Soldata igoerarekin batera, bi ziren beste eskaera nagusiak:

1. Begiraleek eskolak prestatzeko behar dute denbora aintzat hartzea.
2. Kategoria baxuenetako langileen baldintzak hobetzea, zehazki, garbitzaileenak. Izan ere, garbitzaileak kategoriarik baxuenean daude, eta jauzia handia da. Horregatik, hasieratik mahai gainean jarritako elementu bat beraien soldata %2,6 igotzea da:

“Monitoreek sorosleek baino % 3 gehiago irabazi dezakete kategoria saltoagatik, baina garbitzaileen kasuan, aldea handiagoa da. Asanbladan, langile guztiek argi zeukaten: kategorien artean hainbesteko aldea ez zuten bidezkoztat jotzen”.

Maddi Aspiazu



7 Lehen greba egunak

2023 urte hasieran izan zituzten lehen bilerak enpresarekin, baina ez zegoen aurrerapausorik, ez eta borondate keinurik ere.

“Urte hasierako bilera horiek ez ziren emankorrak izan. Ihauteri sasoian jarri genuen nolabaiteko muga. Erantzunik ez bazegoen bestelako urratsen bat pentsatu beharko genuen. Mobilizazioak edota grebak”

Langilea 2

Hala, hamar eguneko greba egitea deliberatu zuten langileek 2023ko martxoan.

“Adarra jotzen ari zitzaizkigula sentitu genuen. Bertan behera uzten zizkiguten bilerak bezperan abisatuta. Asteak pasatzen zirela ikusita, erabaki genuen nahikoa zela, beste zerbait egin behar genuela. Abisatu genien negoziatzera esertzen ez baziren grebara joko genuela. Eta hala ere berdin jarraitu zuten. Ez genekien ondo zein greba moldetara jo, eta hasteko, mugagabera jo gabe, hamar eguneko deialdia egin genuen”

Langilea 2

“Langile batzarra egin genuen horixe erabakitzeko. Ez zen erraza izan. Gehienek ez genuen espero grebak hamar egun iraun zezakeenik. Uste genuen lehenago jasoko genuela erantzun bat”

Langilea 1

“Gehienez jota bi, hiru, edo asko jota lau eguneko greba irudikatzen genuen. Maddik, abisatu zigun enpresak eutsi zezakeela”

Langilea 2

Udalaren jarrerak ez zuen egoera errazten. Langileei esaten zien BPXporten % 1eko igoera hori onar zezaten. EAJ alderdiaren esku zegoen udal gobernua garai horretan.

Oposizioan zeuden alderdiek, bestalde, langileen greba eskubidea onartzen zuten, baina haien hitzarmena hain txarra ez zela ere esaten zuten.

8 Greba mugagaberako saltoa

Greba egun horiek bukatutakoan, langileak okerrago zeudela kontatu digute. Langileetako batzuk berehala jo nahi zuten greba mugagabera.

“Langileei pixka bat itxaroteko gomendatu genien, asteren bat. Udalaren aldetik nolabaiteko mugimendua zegoela zirudien une batean, tartetxo bat eskatzen ziguten. Baina maiatzean hauteskundeak zetozen, eta egoera luzatzea bilatzen zutela ohartu ginen.”

Maddi Aspiazu

“Udalak bilera definitibo moduko bat jarri zuen, eta aukeraren bat egon zitekeela pentsatu genuen. Baina bilerara ez zen udal teknikari bakar bat ere azaldu eta enpresaren aldetik, beste behin ere, ez zen inolako negoziatzeko borondaterik agertu.”

Langilea 3

Langileek batzarrean erabaki zuten maiatzaren 8rako, udal hauteskundeak baino lehen, greba mugagaberako deialdia egitea.

Sasoi hartan probintzia mailako hitzarmena negoziatzen ari ziren. 2012 urtetik eroria zegoen hitzarmena berrezartzeko, eta hitzarmen propiorik ez zuten kirol-degi azpikontratatueta lan baldintzak ezartzeko. Negoziazio mahai horretan zegoen BPXport enpresa, patronalaren aldean.

“Probintzialera jo genezan esaten ziguten enpresakoek. Gu probintziako hitzarmenen alde gaude, noski, baina horrek ezin du

gure negozioazio gaitasuna mugatu. Ulertzen dugu kirol zentro bakoitzak bere berezitasunak dituela eta gure hitzarmen propioak jaso egiten zituen, probintzialak ez ordea. Guretzat, hitzarmen probintzialera itzultzea atzerapausoa izango zen”.

Ordezkaría 2



9 Kirol klubuen presioa

Gatazka luze honetan langileek pairatu duten zailtasunik handienetakoa eskualdeko zenbait kirol klubek erakutsi duen jarrera izan da. Hizketaldietan zehar une askotan egin zaio erreferentzia oztopo honi. Grebara jo aurretik, langileek

bilera bat antolatu zuten eskualdeko kirol klubekin egoera azaldu ahal izateko. Bi bilera oso gogor gogoratzen dituzte elkarriketatuek:

“Ea zertaz kexatzen ginen aurpegiratzen ziguten. Salbuespenak egon ziren jakina, baina orokorrean oso zatar tratatu gintuzten. Non sartu ginen! Bi orduko bilera eta egurra jaso genuen toki guztietatik”.

Langilea 3

Tolosako kiroldegiak eskualde osoari ematen dio zerbitzua, eta eraikin anitzek osatzen dute: Usabal kiroldegia herriaren kanpoaldean, Beotibar pilotalekua, Berazubiko estadioa... Egoitza hauek guztiak irekitzeaz, pilotalekua salbu, azpikontratutako langileak arduratzen dira. Hortaz, grebak ekarri zuen leku guzti hauek itxita mantentzea.

“Usabalgo kiroldegian saskibaloia dago, igerilekua, eskubaloia, taekwondo... Eskualdean klub pribatu asko dago eta azpikontratek irekitzen dituzten instalazioetan entrenatzen dute. Dena itxita egotean, ezin zuten entrenatu”.

Langilea 1

“Oso jarrera desagokoa izan zuten. Presioa, xantaia sare sozialetan, hesiak saltatu... Haien seme-alaben segurtasuna jokoan zegoela aurpegiratzen ziguten, entrenatu ahal izateko inguruko beste herri batzuetara desplazatu behar zirelako, eta bidean zerbait gertatuko balitz ardura gurea litzatekeela...”.

Ordezkaria 2

Kiroldegiko langile gehienak Tolosan edo eskualdeko herrietan bizi dira, eta grebak iraun zuen bitartean, oso gogorra egin zitzairen herriko bizitza egitea. Presio handia sentitu zuten, batez ere klubak aldetik, greba amai zezaten.

“Egoeraren erantzule egiten gintuzten gu, langileok. Zergatik ez zioten klubek presio egiten udalari, edota enpresari?”.

Langilea 1



Horrek egoera erosoan egiten zuen BPXport enpresarentzat: Klubak jarrerak egoera nola gaiztotzen zuen ikusita, ikusle posturan mantendu ahal izan zuten.

“BPXportek presioa baino, utzikeria agertu zuen. Beraien asuntza ez balitz bezala. Tarteka saiatzen ginen haiekin bileraren bat egiten, eta haietako batean, arduraduna Miamin oporretan zegoela esan ziguten”.

Langilea 2

Nolabait ere, enpresari erosotasuna eman zion klubek piztutako tentsioa. Gainera, Madrildik gidoitzen dute inbertsio-funts batek haren zati bat erosi duenetik. Enpresako arduradunak ez dabilta Tolosako kaleetan zehar, langileak bezala. Ez dute aurpegirik, ezta izen-abizenik ere.

“BPX lasai sentitu da klubek gu errudun egin gaituztelako. BPX erdian egon ordez, kanpo bezala geratu da. Udala, herria, eta langileak. Enpresa pribatua fuera”.

Ordezkaría 1

Enpresarekin izandako bileretan, ordezkariak sentitu duten gutxiespena mahaigaineratu dute:

*“Mespretxua, utzikeria. Hor ikusten genuen ez zela erraza izango.
Bilera guztiak halakoak ziren. Gutxiesten.
‘Zu ixo! Zu ez zara monitore!’ Nola ‘ni ixo’, ordezkaria naiz eta!”*

Ordezkaría 2

Errespetu gabeko jarrerak ziren nagusi bileretan, eta ordezkariak, negoziatzeko borondaterik eza egiaztatu zuten behin eta berriro.

*“Negoiazioa esaten dugu, baina ez zen inoiz negoziazorik egon.
Greba mugagabea enpresak egindako eskaintzarik onena,
lehen hamar greba egunen aurretik egindako berbera zen. Alegia, %1eko igoera.
Eskaintzak okerrera zihoazen. Greba egiten duzunean beti espero duzu
presio horrek, beste aldetik datorren eskaintza hobetuko duela. Gure kasuan,
okerrera egiten zuten, Hitzarmen probintzialera jaitsi arte.”*

Ordezkaría 1

Zentzu honetan, elkarriketetan atera den beste elementu bat, zenbaitetan publikotasunari buruz gizartean gailentzen den ideia osagabea izan da. Alegia, kirol zerbitzuen erabiltzaileentzat, zerbitzuaren publikotasunarekin lotuta, haien eskubideetara mugatzen dela. Zerbitzu publiko batean lanean ari direnen lan eskubideak ez dira beti publikotasunaren defentsan barneratzen.

*“Greba beste nonbait izan balitz, hemengo klubek ulertuko zuketen. Greba normaltzat joko zuketen, baina beraiei eragin dien momentuan, normala dena, normaltzat ikusteari uzten diozu. ‘Niri berdin dit zuk 1.500 edo 1.000 irabazi, nik nahi dut nire seme alaba kiroldegira joatea. Eta eskubidea dut, ze publikoa da!’
Haserrea ulertzen dugu, baina erantzukizuna guri leporatzea, hori ez:
– ‘Nire semea igerileku gabe utzi duzu.
– Baina ez duzu egiten irakurketa zergatik geratu den igerileku gabe?
– Zuk utzi duzu ez duzulako lanik egin.”*

Ordezkaría 2

Honen harira, Oria-Goierri eskualdearen ardura daraman Maria Imazek espresuki azaldu zuen, gatazka honetan lan pedagogikiko handia egin behar izan dela. Alegia, publikotasunaren barruan, langileen lan-baldintzen garrantzia ere

aintzat hartzen duena. Baita zerbitzua enpresa pribatuetara azpikontratatzeko denek ere: onartezina da, enpresa pribatu batek bere mozkinen maximizatzea helburu, zerbitzu publiko baten ematen ari diren langileen baldintzak prekarizatzea.

10 Grebaren egunerokoa: ekintza sindikala eta emozioak

Greba egunerokotasun berri bat ekarri zien kiroldegiko langileei. Errutina eta eguneroko horien inguruko bizipenak partekatzerakoan, ezinbestean, greban zehar emozioen munduak izan duen presentzia azaldu digute.

Grebaren lehen egunetara atzera joz gero, antzemandako sentipenez aritu zaizkigu:

“Lehen egunetan oso arraroa izan zen. Kiroldegia itxita eta lanera ez joatea”.

Langilea 1

“Sentsazioa pandemiaren itxialdiaren garaia ekarri zigun gogora.

Erreala ez zirudien sentipena”.

Langilea 2

Maiatzaren hasiera artean, langileetako askok, greba egun gutxi iraungo zuela uste izan zuten hasieran. Alegia, kiroldegiak ixteak eragindako presioa nahikoa izango zela enpresa eseri arazteko.

“Nik uste nuen hiru egunetan konponduko zela. Ez nuen sinisten hau gelditzea zegoenik. Ez genuen uste itxita mantendu zitekeenik”.

Ordezkaría 1

*“Guk uste genuen, behin mugagabea deituta, ikusita aurretik
hamar eguneko greba egin genuela, nahikoa izango zela.
2016an greba deialdi bat bota genuen, baina ez genuen egin behar izan”.*

Ordezkaría 2

Grebarekin, kiroldegiak itxi bai, baina langileak ez ziren eskuak gurutzatuta geratu. ELAk Tolosan bertan duen egoitzan elkartzen ziren, pankartak egiteko, bilerak egiteko... Eguneroko horretan, taldearen elkar-zaintza nabarmena izan da. Gatazka alde emozionalean gogorra izan dela azaldu digute, eta horri eutsi ahal izateko, elkarri animoak eustea eta batak bestea sostengatzea erabakigarria izan da:

*“Emozioen aldetik oso gogorra izan da, antzeko prozesuetan
ere izaten den bezala. Gorabehera asko. On egin digu
elkartuta egoteak, eta elkarri barruak husteak”.*

Langilea 3

*“Sostengu emozional handia eman diogu elkarri.
Ikusten duzu zein dagoen baxu”.*

Ordezkaría 1

*“Normala da. Nik halako presiorik ez dut inoiz sentitu.
Seme-alabak ditut eta hori motxila handia da.
Baina halakorik ez dut inoiz sentitu”.*

Ordezkaría 1

Lanera ez joatea eta herrian sumatzen zen presioa jasatea gaitza izan da. Greba langileek hasieran esperotakoa baino gehiago luzatu izanak, tentsio guzti horri eustea zaildu egin du:

“Hemendik nola aterako gara? Ez genuen argia ikusten momentu batzuetan”.

Ordezkaría 1

*“Ikustea egunak gehitu beharrean, hilabeteak gehitzen zirela.
Egunerokotasunean ez zinen jabetzen, baina atzera begira,
urruti geratzen zein maiazaren 8 hura. Sinestezina zirudien. Hasierako
dinamikekin distraitu egiten zinen, baina zuloa geroz eta sakonagoa zen”.*

Ordezkaría 2

Orduak eman dituzte bilduta, gatazka sozializatzen, postontziz postontzi informazioa banatu edota pankartak egiten. Horretaz gain, herrian manifestazioak antolatu dituzte eta herriko komunikabideetara jo dute. Gatazkarekin etengabe lotuta eta konektatuta egon dira, erne:

“Urduri geunden, ea mugimendurik bazetorren”.

Langilea 2

“Egunero geunden telefonoari adi. Batekin hitz egin dugun ala ez galdezka. Aurrerapausorik ba ote zegoen galdezka. Egunetik egunera, berriren baten zain.

Tentsioa zegoen, ez soilik udalaren aldetik zerbait etorriko ote zen, baizik eta klubaren aldetik gure notiziaren bat agertuko ote zen...”

Langilea 1

Gatazkaren sozializazioa gehien herrian bertan egin zuten. Izan ere, Usabal kiroldegia herrigunetik aldentuta dago, eta greban zehar instalazioak itxita zeuden bitartean kiroldegiko ateetan ezer eginez gero ez zuen desio zuten ikusgarritasunik izango. Manifestazioez gain bestelako ekimenak ere burutu zituzten, hala-hola, bizikleta martxa bat, aerobica, baina ez zuten herriaren aldetik hasiera batean espero zuten sostengurik jaso:

“Kalean esaten ziguten onean ere, ea gauza konpontzen zen, baina gero deialdietara ez zen jenderik azaltzen. Ez da jendea aurka zegoela hainbeste, baina nolabaiteko apatia erakusten zuten”.

Ordezkaria 1

Aberasgarria izan daiteke puntu honetan greben alderdi psikosozialaz hitz egitea. Manu Robles-Arangiz fundazioarentzat idatzitako argitalpenean, EHUn psikologia irakasle den Xavier Minguezek grebara hurbilketa psikosoziala proposatu zuen:

“Grebak alderdi positibo ugari du ikuspuntu psikologiko eta sozialetik begiraturaz gero, baina ezin dugu ahaztu pertsonen funtzionamendu normala nahasten duela eta, honenbestez, ezinegon psikologikoa eragin dezakela”.

Minguezek greban zehar, kideen arteko harremanari zentraltasuna ematen dio:

“Grebaren zehar ongizate psikologikoa babesteko, sostengu sozial, familiar eta sindikala ez ezik, funtsezko jotzen da ere gatazkak irauten duen artean denbora



lanean bezalaxe egituratzea... Halaber, ekintzetan partaidetza aktiboa izan behar da eta greban diren lankideekin kontaktu sozial jarraituari eutsi”.

Lekukotasunek halaxe erakutsi digute, eta denek goraipatu dute taldearen sostenguari ematen dioten balioa. Minguezen hitzek bete-betean jotzen dute honekin ere:

“Nolabait ere, grebaren eragin psikologiko kaltegarria arintzeko ase beharra dago partaidetza eta lotura beharra, babes eta elkar-sostengu sentipena, elkartasuna eta enpatia, eta horrek eskatzen du greba-prozesuan parte hartzea eta besteeikiko harreman jarraitua izatea”.

Lankideen arteko harremana jarraitua, zabala eta bizia izan da, eta ekintza sindikalaz harago ere, elkarrekin sozializatu izan dira:

“Grebaz aparte gelditu egiten ginen, kuadrilla handi bat bezala”.

Langilea 1

11

Udal gobernuaren aldaketa

Gatazkaren korapiloa askatzen hasteko, esanguratsua izan zen 2023ko maiatzeko hauteskundeek ekarritako udal gobernu aldaketa. Alkatetza EAJ alderditik EH-Bildura pasatu zen. Gobernu berria izan zen norabidea aldatzen lagundu zuen hurrengo faktorea.

Puntu honetara iritsita, komeni da gatazkak zituen hiru ezaugarri nagusi laburbiltzea:

1. Langileen antolakuntza eta indarra, irmoki erakutsi dute, baita gobernu berriari ere:

“Hau irabaztea posible izan da, udaletxearekin izan ditugun harremanetan, ikusi arazi diegulako gu ez ginela itzuliko lanera gure aldarrikapenei soluzio bat eman arte”.

Ordezkaria 2

2. Zerbitzuak azpikontratatzeko direnean ere, administrazio publikoak erantzule dira, eta beraz, arduradun diren heinean, gatazketan eragiteko gaitasuna ere badute, borondatea badago behintzat.
3. BPXport enpresak hitzarmena berritzeko inolako borondaterik azaldu gabe jarraitzen zuen.



12 **Mugarri sindikala: kontratu publiko bat etetea pleguak aldatu eta lan-baldintzak hobetzeko**

Hasieran, Udalaren arduradun berriak indarrean zeuden baldintza-agirien barruan hobekuntzak egiten saiatu ziren, enpresak horretarako tarteaz bazuelakoan. Saio bat egin zuen udalak enpresa eta langileen arteko

negoziazioa ahalbidetzeko. Baina udal gobernua bi gauzataz jabetu zen: enpresak ez zuela nahi, eta marjina hori estua zela. Kontratuan dirua zegoen, baina marjina ez zen nahikoa. Eta gatazka bat zegoela konturatu ziren. Udala guzti horretaz jabetu zenean, atea zabaldu zioten BPXport-ekin zegoen kontratua eteteari.

Esperientzia sindikalean garaipen itzela da, ez baita ohikoa halakoak gertatzea. Udalak sindikatuarekin izandako bilera batean, kontratua eteteko konpromisoa hartua zuela jakinarazi zuen, baina denbora eta konfiantza eskatzen zuten.

“Denbora eskatu ziguten, zein forma emango zioten pentsatu eta erabaki zezaten”.

Maddi Aspiazu

Gatazka honetan denborak ere bere garrantzia izan du. Izan ere, grebalariek ez zuten inondik ere irudikatzen hilabeteetan iraungo zuenik grebak. Hilabete guzti horietan grebari eustea gogorra izan da:

“Nahiz eta borondate politiko bat egon alkatetzatik, luzea egiten zitzaigun hori gauzatzeko behar zen denbora, nahiz eta ulertu”.

Ordezkaria 1

“Beraien denborak ez dira izan gure denborak. Gu egunero geunden mugikorrean. Guretzat egun bakoitza, egun galdua zen”.

Ordezkaria 2

Irailean udalak kontratua eteteko aukeraz hitz egin zien, baina langileek grebari eutsi zioten, berme nahikoak izan arte. Hala, 2023ko azaroko osoko bilkuran, udalak publiko egin zuen baldintza-agiriak eten eta berriak aterako zituela. Hori jakindakoan langileek greba eten eta lanera itzultzea erabaki zuten.

Langile eta ordezkariekin izandako hizketaldietan, une horrek izan zuen garrantzia ikusarazi ziguten. Oraindik, lan hitzarmena negoziatu gabe zegoen arren, udalaren erabaki hau, arnasa eta lehen ospakizun unea izan zen:

“Pausoka izan da garaipena. Bagenekien prozesu luzea izango zela. Lehen garaipena sentitu genuen udalak esan zuenean kontratua etengo zela. Horregatik itzuli ginen lanera. Pixkanaka izan da”.

Ordezkaría 2

“Guretzat, udalak borondatea erakutsi zuenean, ‘garaipenaren hasiera’ izan zen. Prentsaurrekora eraman zutenean, ja orduan bai. Hor ez zegoen atzera egiterik udalaren aldetik. Prentsaurrekoa egin eta egun berean osoko bilkuran onartu zenean, listo”.

Ordezkaría 1

Hau da, langileak, hitzarmena berritu gabe itzuli ziren lanera:

“Lanera itzuli ginen akordiorik gabe, urtebete. Jendeak uste zuen bagenuela dena adostuta. Jendeak ez daki zein baldintzatan egon garen, zelan luzatu den; urtebete egon gara zain”.

Langilea 1

“Zorionak gutxi esan ziguten. Gehiago izan zen ‘Bazen garaia!’ eta klubekin hotz. Gu behin lanera itzulita klubei eta erabiltzaileei ja pasatu zaie beraien arazoa. Gu lanean ikusita usteko zuten askok gure egoera konponduta zegoela. Sinatuta bagenuela usteko zuten gehienek! eta ia urtebete pasa da”.

Ordezkaría 2

Izan ere, 2023ko azaroan lanera itzuli zirenetik, 2024eko urrian hitzarmena sinatu den arte, ia beste urtebetez itxaron behar izan dute. Beste urtebeteko luzapena, besteak beste, baldintza-agiri berri horiei jarritako errekurtsioek, baldintza-agiri definitiboen argitaratzea 2024ko uztailean atzeratu zutelako. Lehiaketa horretan, Kirolzer enpresa atera zen garaile, irailaren 1ean esleitu zitzairen eta urriaren 1ean sartu ziren.

Baldintza-agiri berriek lan baldintzak hobetzeko marjina bazutela jakinda, eta enpresa aldaketa zetorrela jakinda, langileek nolabaiteko arnasa sentitu zuten:

*“Enpresa aldatzeak gure itxaropena piztu zuen.
Hitzarmena sinatu ahalko genuela sentitu arazi”.*

Langilea 2

Alegia, langileek, sentipena zuten Kirolzer-ek bestelako jarrera izango zuela gatazkaren aurrean, eta susmoak bete ziren: Kirolzer sartu eta hurrengo egunean lehen bilera izan zuten. Handik bi astetara, bazuten hitzarmena. Zalantzarik gabe, hitzarmena sinatu zutenean lasaiago hartu zuten arnas.

“Poz pozik ez gara egon hitzarmena sinatu arte” (bezperan).

Ordezkaría 2

*“Prozesua luzea izan da. Baldintza-agiri berriak aterako zirela,
gero inpugnatu ziren, beti zerbait gertatzen zen...”.*

Ordezkaría 1

Azken batean, langileentzat garaipenik esanguratsuena hitzarmenarekin etorri zen. Hitzarmena baita lan baldintzak hobetu ahal izateko langileek berezkoena duten tresna.

13 Garaipen tresnak

Greba arrakastatsua izan dadin eta gatazka garaipen batekin irabazi ahal izateko tresna baliotsu ugari behar dituzte langileek. Tolosako greba esperientzia honetan ere, sindikatutik oso identifikatuta ditugun tresnak antzeman ditugu: Sindikatuko egitura-arduraduna; erresistentzia-kutxa;

ordezkaritza nahikoa; eta afiliatu kopurua. Langileek ere, horietako tresna batzuen garrantzia azpimarratu dute:

“Erresistentzia kutxatik, ia denek kobratu genuen, bestela nola iraun zazpi hilabete? Erresistentzia kutxak lasaitasun bat ematen du, eta horrekin baduzu aukera greban eusteko, aldarrikapenak lortu arte. Soldatarik gabe bestela ezinezkoa da... Dena gastua da! Borrokan jarraitu ahal izateko laguntzen du”.

Langilea 2

“Sindikatuarekin izan dugun harremana funtsezkoa izan da. Horretan egiturako arduradunak gurekin batera aritu dira”.

Langilea 1

Aurreko ataletan ere argi geratu da atal sindikal honen indarra: langile asko daude afiliatuta, eta ordezkari sindikal guztiak ELA sindikatukoak dira. Biak ala biak ere, tresna giltzarriak dira garaipenerako. Kasu honetan, langileek hiru ordezkarien ekarpena, lana eta inplikazioa eskertu dute. Paper oso garrantzitsua oso modu egokian bete dutela adierazi digute. Gainera, ordezkarien artean, ekiteko, jarduteko eta egoteko modu desberdinak daudela ere esan dute.

“Ordezkarietako batek oreka mantentzen zuen. Paper izugarria da hori. Batzuetan ez da zertan hitz egin behar, egonean ekarpen handia egin daiteke. Isilik egon eta lasaitasuna adieraztea ere handia da”.

Ordezkaria 1

14 Akordioa

ELA eta Kirolzer enpresaren artean sinatutako akordioak gatazka luze eta konplexu bati amaiera eman dio. Akordioak langileen hiru aldarrikapen nagusiei erantzuten die:

- Soldaten eguneraketa eta erosahalmenaren bermea.
- Kategoria arteko desberdintasunak murriztea.
- Eskola prestaketa orduak lanordu gisa aitortzea.

Hitzarmenak 2020-2026 aldia hartuko du, eta garbitzaileen soldatek igoera handiagoa jasoko dute (beste langileek baino % 2,6 gehiago), kategorია baxuenek baldintza hobeak lortu ditzaten. Era berean, lanpostu batzuen kategorია berrantolatuko da, eta klase prestakuntza orduak modu egokian arautuko dira.

15 Eta orain, ospatzera!

Borroka sindikalean garrantzia handia du lorpenak ikusarazi eta ospatzeak. Egindako esfortzua eta lortutakoa balioan jartzen du; etorkizunera begira itxaropenari zirrikitua irekitzen dio, eta datozen erronka berriei heltzeko prestatzen du lantaldea. Noski, ospatzeak dakarren gozamenarekin!

Elkarriketan zehar une batean baino gehiagotan aritu gara garaipen uneak ospatu beharraz. Grebak zazpi hilabete iraun zituen arren, gatazka beste urtebete luzatu zela ere ikusi dugu. Horrek ekarri du, epealdi guzti horretan, ospatzeko beharra eragin dieten une ezberdinak:

1. Lehendabizikoa, gobernu aldaetarekin udalak baldintza-agiri berriak aterako zituela esan zienean izan zen.
2. Bigarrena, erabaki hori publiko egin zenean langileek lanera itzultzea erabaki zutenean.
3. Hirugarrena, Kirolzer enpresa berria sartu zenean, itxaropenez hartu zuten, negoziatzeko prestasun handiagoa sumatu baitzuten.

Antolakuntza sindikalaren ikuspuntutik, udalak baldintza-agiriak atzera bota eta berriak ateratzea garaipen izugarria izan da, baina unerik gailenena, zalantza izpirik gabe, gatazkari amaiera eman dion akordioa sinatzea izan da. Izan ere, garaipen osoagoaren sentipena, akordioarekin iritsi zen.

16 Ondorioak

Tolosako Kiroldegietako langileen greba eta lan gatazka esperientzia aberatsa izan da, eta hainbat irakaspen utzi digu. Zazpi hilabeteko greba mugagabea eta gatazkaren ondorengo urtebeteko negoziazio-prozesua ez dira kasualitatez luzatu. Alde batetik, enpresaren jarrera itxia eta negoziatzeko borondaterik eza egon dira; bestetik, langileen batasuna eta sindikatuaren antolaketa sendoa gatazkari eusteko funtsezko elementuak izan dira.

Garaipenik handiena, zalantzarik gabe, udalaren borondate politikoa aldaraztea izan da. Sarritan, azpikontratazioaren ondorioz, administrazio publikoek gatazka laboralak enpresa pribatuen esku utzi ohi dituzte, baina oraingoan

presio sindikalak udala interpelatzera eta ardura hartzera eramane du. Udala azkenean erantzule egin da, baldintza-agiriak eten eta zerbitzu-baldintza berriak ezarriz. Hau ez da ohikoa gatazka sindikaletan, eta Tolosako kasuak erakusten du mobilizazio irmoak eta estrategia sindikal egokiak administrazio publikoan eragin dezaketela.

Bestalde, langileen batasuna eta sindikatuaren egitura sendoa izan dira gatazka honen arrakastaren giltzarriak. ELA sindikatuaren babesak, erresistentzia-kutxaren sostengua eta ordezkari sindikalen lana ezinbestekoak izan dira grebari eusteko. Afiliazio maila altua eta langileen artean zegoen konfiantza berebiziko elementuak izan dira negoziazioan indartsu egoteko.

Esperientzia honek argi utzi du lan gatazka batek eragin sozial zabala izan dezakeela, eta horrek aldeko eta kontrako indarrak sortzen dituela. Eskualde mailako kirol klubak presioa, batez ere, eta erabiltzaileen haserrea zailtasun gehigarriak izan dira langileentzat. Honek erakusten du lan eskubideen borrorak askotan inguruko komunitatearen babesik gabe egin behar izaten direla. Presio hori kudeatzea erronka handia izan da.

Azkenik, gatazka hau esperientzia sindikal garrantzitsua bihurtu da, bai langileentzat, bai ELA sindikatuarentzat. Greba mugagabeak, gatazka luzearen kudeaketak eta negoziazioaren azken faseak erakutsi dute langileen antolaketa estrategikoa funtsezkoa dela baldintzak hobetzeko. Langileek garaipen handia lortu dute, baina borroka ez da amaitu: etorkizuneko erronkei aurre egiteko, lortutako esperientziatik ikasi eta batasunari eutsi beharra dago.



Maria Imaz • ELAko egiturako arduraduna Oria-Goierri eskualdean

Maria Imazek gertutik jarraitu du Tolosako Kirolddegiko langileen gatazka. Hurrengo ideiak nabarmendu dizkigu:

- **Batasuna eta antolakuntza ibilbidea dituen kolektiboa.** Tolosako kiroldegiko langileak beti izan dira kolektibo nahiko batu eta antolatu bat. Azken gatazka honetara arte, negoziaketa bidez lortu izan dituzte beraien aldarrikapenak. 2022ko irailean BPXport enpresa iristean egoera konplikatu egin zen, negoziaketa oso gogorra izan zen eta langileei grebara jotzea beste aukerarik ez zitzaien gelditu.
- **Borrokak indartutako taldea.** Gatazkan zehar taldea oso batuta egon da eta asko indartu du haien harremana. Monitore, sorosle, garbitzaile nahiz mantentze-lanetako langileek talde bakar gisa jokatu dute. Zentzu horretan, oso aberasgarria eta polita izan da talde gisa zein ondo moldatu diren ikustea, nola elkartu diren, nola lan egin duten... Txalogarria izan da hauen jarrera. Grebari eustea gogorra ere izan da, eta zoragarria izan da ikustea batzuk etsiak hartuta zeudenean beste batzuek nola animatu eta lagundu dituzten.
- **Sozializazioa, presentzia eta pedagogia.** Langileek herrian asko sozializatu dute gatazka: manifestazioak antolatu dituzte, kirol ekintzak egin dira plazetan. Ordu asko igaro dituzte ELAk Tolosan duen egoitzan ere, pankartak agiten, bileretan, unean uneko egoera aztertzen... Eskertzekoa da tokiko komunikabideek gatazkari eman dioten oihartzuna, baina langileek egoera gogorrak bizi behar izan dituzte, batez ere klub pribatuek eragindako presio eta boikotarengatik. Honekin lotuta, pedagogia lan handia egin dugu taldean. Zerbitzu publikoen garrantzia egin dugu azpimarra. Izan ere, nahiz eta azpikontrata bidez kudeatu, zerbitzua publikoa da: zerbitzuaren kalitatea

eta langileen lan-baldintzak aurrekontu publikoetatik esku pribatuetara bideratzen diren baliabideen menpe dagoela. Herrian mezu hau sozializatzen saiatu gara.

- **Borondate politikoa eta erakundeen esku-hartzea.** Zalantzarik gabe, gatazka honek daukan ezaugarririk nabarmenena udal gobernuko EH-Bilduk izan duen jokabidea izan da. Izan ere, honek erakutsi digu ELAk hainbestetan errepikatzen duena: borondate politikoa dagoenean, urratsak eman daitezkeela. Indarrean dagoen baldintza-agiri bat bertan behera gera daitekeela eta langileen baldintzak hobetzea ahalbidetuko duten baldintza-agiri berriak aurkeztea. Udalak egin duena, noski, ez litzateke posible izango langileek egindako grebarik gabe.
- **Borroka luzea, baina ezinbestekoa.** Prozesu luze eta gogorra izan da, baina argi dago borrokkak merezi izan duela. Azkenean lortu dute merezitako hitzarmena sinatzea!



Maddi Aspiazu • Oria-Goierriko eskualdean, Zerbitzuak Federazioa

Langile eta ordezkariekin egindako solasaldietan ere parte hartu zuen Maddik. Gatazkaren aurrekoak ulertzen lagungarri izan ziren bere azalpenak, eta noski, baita greban bizitakoak hobeto ezagutzeko ere. Elkarriketetan egindako hainbat ekarpen testuan zehar txertatu ditugu. Hurrengo ezaugarriak azpimarratu ditu Maddik:

- **Afiliazio handia eta elkarrekiko konfiantza.** Tolosako Kiroldegian langile asko ELAko afiliatuak dira, eta askok hainbat urte darama sindikatuan. Langileek momentu oro jakin dute negoziaketa zein puntutan egon den, ez da sekreturik egon eta horrek eragin du konfiantza osoa izan dutela ELAko egiturako kideongan eta ordezkariengan. Ordezkarien lana funtsezkoa izan da, eta langileak mugimendu guztien parte izan dira. Uneoro “minuto y resultado” zein zen jakin izan dute; bilera bakoitza amaitu orduko jakinarenean gainean jarri ditugu.
- **Erabaki kolektiboak eta adostuak.** Erabakiak taldean hartu dira, eta urratsak emateko orduan adostasuna izan da nagusi: lehendabizi hamar greba egunak deitzeko, gero mugagabera jotzeko, aurrerago udalak baldintza-agiri berriak aterako zituela bermatutzat jo zenean lanera itzultzea erabakitzeko... Plantilla osoak sentitzea negoziaketa hain berea dela, sindikatuarentzat balio handiko garaipena ere bada.
- **Lotura sindikala sendotzea.** Esperientzia honek, etorkizunera begira ere, sindikatuarekiko gertutasuna erraztu dezake: langileek zalantza edo beharizanen aurrean ordezkariengana jotzeko, edota sindikatura gerturatzeko. Langileek sindikatua bisitu egin dute, sindikatuaren parte sentitu eta egin dira.

- **Pleguak negoziatzen diren unearen garrantzia.** Atzera begira, eta azpikontratazio eta baldintza-agiriekin lotuta: baldintza-agiriak atera aurretik ez baduzu negoziatzen horrek ondorioak ditu langileengan. Hori da 2022ko baldintza-agiriekin gertatu zitzaiguna: udalaren baldintza-agiriak hamar urterako izan ziren eta ez zuten tarterik ematen langileentzat baldintzak hobetzeko.
- **Ezarritakoa aldatzeko borondate politikoa.** Azkenik, Maddik gatazka honen ideia nagusietako bat azpimarratzen du: borondate politikoa dagoenean, egingarria dela indarrean dagoen baldintza-agiri bati amaiera eman, eta baldintzak hobetzeko tarteak daukaten baldintza-agiri berriak argitaratzea.

